

{ datorrena } Iñaki Soto

# Ziklo baten aje kulturalak, inertziak hausteko ordua

Gizarte gisa ditugun ajeetatik zein den larriena esatea zaila da. Tamalez, aje bakarrak ez du unea azaltzen, beste ajeekin konbinazio pozoitsu batean ez bada. Hemen ez dago erredukzionismorako aukerarik, akatsen artean txapeldun posiblerik, guztia azalduko duen auzi soilik. Ezta soluzio magikorik ere, ondorioz. Soluzioak nahi dituenak, ordea, arazoak identifikatu behar ditu. Bizitza publikoaren ardatz desberdinak kontuan hartuta, gurean ikusten ditudan gabezia soziopolitikoaren antologia bat egiten ausartu naiz. Nire eguneroko eztabaida publiko eta pribatuaren atzean topatu dudana ajeen patroia antzeko bat da hau. Baita inertzia hau apurtzeko ikusten dudana joeraren aldarria ere.

Instituzio mailan, arazo larriena **klientelismoa** da, nire ustez. Ustelkeriaren lehen fasea da eta egitura guztiak kaltetzen ditu. Oso kutsakorra da. Merituak eta profesionaltasuna baztertzen dituen normaltasuna ezartzen du, kultura bihurtuz.

Hain zuzen ere, bere adierarik zabalenean hartuta, kulturaren alorrean **parasitismoa** ere oso kezkatua nago. Euskal Herrian errotua zegoen lanaren kulturak bazuen ajerik, zalantzarik gabe, baina horren aurkako erreakzioa ez da oso positiboa izan, nire ustez. Hedonismoaren forma interesgarriak baztertu ditu eta parasitismo gisa endekatu da. Lan mundutik

hasi eta sorkuntzaraino, era batean edo bestean, esfortzurik gabe besteen lanaz bizi edo besteen porrotekin soilik irabazi nahi duen jende gehiegi dabil hortik zehar.

Intelektualki **kaskarkeriak** beste ezerk baino gehiago sutzen nau –erdarazko “*mediocrity/mediocridad*” hitzek fenomeno hori hobeto irudikatzen dutela uste dudanez, euskaraz “*mediokritatea*” onartzeko deia egiten dut, pragmatismoaren izenean–. Ziklo honen agente nabarmenenak mediokreak direla uste dut. Maila orokorra jaistera dedikatzen diren pertsonak dira, kontserbadoreak, koldarrak, beren mugak kolektibizatzen dituztenak. Lidergoa eta arrakasta gorroto dituzte, eredu eskasak dituzte eta apenas dute enpatiarik. Beren jokabideak pobretzea dakar, bizitzaren alor guztietan, gainera.

**Parrokianismoa** komunitateen osaketa, hauen ugaltzea eta aberastea mehatxatzen ari da. Komunitateen ga-

rapena oztopatzeaz gain, hauen arteko elkarlana zapuzten du, aliantzak ezinezko bihurtuz.

Soziopolitikaren alorrean, “makarroia” izan nahi duen **lobbysmoa** arazo larria da gurean. Makarra baino gehiago *maccarthista* delako, besteak beste. Autonomiaren izenean besteak zer egin behar duten erabaki nahi du, kanpotik, elkarriketatik gabe, negoziatzen gabe, mandatuz. Autoritarioa eta antidemokratikoa da. Bere kalterik larriena, nire ustez, erakunde eta pertsonengan sortzen duen erreakzioa eta balizko desbideraketa da. Txartelak banatzeko sistema hau, ginkana ideologikoa onartuz gero, oso posible da norberak bere burua gutxietea, bere ildotik alde batera edo bestera mugitzea, ezarri dioten “label” horretan sartzeko ahalegin zentzugabeak eginez, *lobby* hori ez haserretzeko autozentsuratuz edo printzipioz ados dagoenaren aurka errebelatuz. Ez dago horretarako eskubiderik.

Ziklo honen agente nabarmenenak mediokreak direla uste dut. Maila orokorra jaistera dedikatzen diren pertsonak dira, kontserbadoreak, koldarrak, beren mugak kolektibizatzen dituztenak

Filosofian azalpen psikologizistak bekatu dira, baina gaur egun emozioen munduak garrantzi handia hartu duenez, alor hau ere aipatu behar dela uste dut. Adibidez, konplexu handiak dituzten eta aldi berean egolatra hutsa diren pertsonengan ematen den **amildegi emozionala** aipatuko nuke.

Hau esanda, gehienek ziklo honi buelta ematea ezinezkoa dela pentsatzen dudala uste izango dute. Ez ba. Nire eztabaida publiko zein pribatuaren fenomeno hauetaz kontziente den jende asko topatzen dut. Bahiketa soziopolitiko hauetatik askatu nahi duen jendea da, beren alorrean liderak izateko aukerak dituzten pertsonak dira. Eta honezkero ez dut nik pentsatzen dudana esango duten liderretan sinesten, jendeak pentsatzen duena esateko markoak emango dituzten lidergoetan baizik. Inertzia hauek hausteko garaia da, aukerak badaude. •